


Euskal AEko industri prezioak % 0,2 gehitu ziren 2020ko urtarrilean aurreko hilaren aldean

2019ko urtarrileko datuekin alderatuta, industria-prezioak % 1,5 igo ziren

Euskal AEko industria-prezioak % 0,2 igo ziren 2020ko urtarrilean, aurreko hilabetearekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Datu horiekin, urtarrileko urte arteko tasa, azken hamabi hilabeteetako industria prezioen aldakuntza jasotzen duena, % 1,5etan kokatu zen.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa sektorial zehatzagoak agerian uzten du 2020ko urtarrilean honako hauek izan direla prezioen hazkunderik handienak izan dituzten adarrak aurreko hilaren aldean: *Farmazia-produktuak* (% 2,6 gora), *Erauzketa-industriak* (% 2,2) eta *Ura* (% 2,1). Aitzitik, prezioetan sektore hauetan izan dira hilabete arteko beherakadarik handienak: *Kokeria eta petrolioaren finntzea*, % 0,8ko jaitsierarekin, eta *Metalurgia eta produktu metalikoak*, % 0,6ko jaitsierarekin.

Helburu ekonomikoaren arabera ondasunen sailkapenari jarraituz, aurreko hilabetearekin alderatuta, *Ekipo-ondasunak* % 1,5 igo dira, eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,4. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 0,6 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak, berriz, % 0,4. *Bitarteko ondasunak* % 0,4 jaitsi dira, eta *Energia* % 0,2.

Urtetik urterako datuei doakienez (2020ko urtarrila, 2019koaren gainean), prezioen hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 5,9 gora), *Erauzketa-industriak* (% 5,5) eta *Garraio-materiala* (% 3,6). Alderantziz, prezioetan jaitsierak gertatu dira hemen: *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 1,6 behera), *Industria kimikoa* (% 1,0) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 0,6).

Urte arteko aldian ondasun-talde handien prezioen aldakuntza positiboa izan da *Energiarentzat*, % 4,5 hazi baita; *Ekipo-ondasunentzat*, % 2,5 hazi direnak; eta *Kontsumo-ondasunentzat*, % 1,7 igo baitira. Azken horien artean, % 1,8 igo dira *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak, eta % 1,4 hazi dira *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak. *Bitarteko ondasunen* prezioak, aldiz, % 0,3 jaitsi dira.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Urtarrila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2020urt / 2019abe	2020urt / 2019urt	2020urt / 2019abe
INDIZE OROKORRA	104,2	0,2	1,5	0,2
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	107,9	2,2	5,5	2,2
Manufaktura-industria	105,3	0,1	1,3	0,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	97,7	0,3	2,2	0,3
Ura	106,6	2,1	0,7	2,1
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	104,9	0,4	1,7	0,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,0	0,6	1,4	0,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	105,1	0,4	1,8	0,4
Ekipo-ondasunak	109,0	1,5	2,5	1,5
Bitarteko ondasunak	102,0	-0,4	-0,3	-0,4
Energia	106,2	-0,2	4,5	-0,2

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62